

# Quebec-eko hizkuntz gatazkari gainbegirada

Joxe Manuel Odriozola

## I. ORDEZKAPEN-PROZESUAZ

Mende honen erdi aldetik honantz Quebec-eko herria, bere hizkuntzaren egoeraz kezkatzen hasi zenean, frantses hizkuntzaren egoera politiko eta sozio-linguistikoa zehatz-mehatz zertan zen jakin nahirik abiatu zen (1). Egia esan, kezka-iturriak ez ziren alferrikakoak izan. Inguruan somatzen zutena ez bait zen gutxiagorako: «Les francophones, comme leur langue, sont dominés et menacés dans leur existence; les correctifs qui reposent uniquement sur la bonne foi, la bonne volonté sont impuissants á enrayer le danger» (2).

Inkesta eta ikerketa batzuei esker, lehendabizi, Quebec-eko demografi bilakabidearen larriaz ohartu bide ziren frantses-hiztunei zegokiela (3). Horrela, Quebec-eko frantses-hiztunen kopurua murrizten ari zen eta ez zitzaion aterabiderik aurkitzen, harik eta joera hori aldatzen ez zen bitartean. Frantses-hiztunak denboraren harian gero eta gutxiagotzen ari ziren. Bigarrenik, Quebec-era zetozen inmigranteen artean joera indartsua zegoen hauek ingeles-hiztunen gutxiengoan integratzeko (4). Joera Quebec osoan zehar nagusitu ba-

zen ere, Montreal hiri inguruan gertatu zen nabarmenenik. Guzti honen zergatiak azaltzeko orduan erizpiderik finkoena, besteak baliogabeak direlako (esaterako, erlijio edo xenofobia faktoreak), ingeles-hiztun taldearen asimilazio-boterea azpimarratu behar da. Ez ingelesa frantsesa baino hizkuntza boro-bilduagoa delako, botere sozialaren saretan dagokion leku eta funtzioari esker baizik. Honen ondorio da hain zuzen, gutxiengoaren hizkuntza izanik ere, hizkuntza nagusia edo menderatzailea izatea. Gauza ez baita, ikusten denez, hizkuntza bateko hiztunen kopuru neurrian planteatzen dena. Ez dio axola hizkuntza menderatuak edo menderatzaileak zenbateko hiztun kopurua duten jakitea, besterik gabe behinik-behin (Quebec-en 80 % bat frantses-hiztunak dira, sei milioitik ia bost milioi inguru alegia). Hizkuntz gatazkan, ordezkatzeprosesuaren desplazamenduan, hiztunen faktore kuantitatiboa baino areago inporta duena desplazamendua norabidea dela erakusten digu Quebec-eko esperientziak. Honela ulertzen da hara zihozten inmigranteen jokabidea, hizkuntz komunitate handiagoa hautatu ordeztu, txikiagoa aukeratzean. Euskal-

dunontzat berebiziko inportantzia du fenomeno honek. Izan ere, maiz, entzunak entzunda, badirudi ez dakit zenbait euskaldunberri urtero «fabrikatzearekin» normalizazio-bideari ekin diogula. Eta ez dirudi hortik, hortik ere bai, baina ez batez ere hortik, normalizazio-biderik irekiko genukeenik. Beste nonbait daude desplazamendu-joera korreji dezaketen mekanismoak. Eta asmatu egin behar. Gainerako guztia alfer-lana da azken finean, hori gabe.

Quebec-era itzuliz, hirugarren gai bati helduta, esan dezagun, lantegieta-ko hizkuntza nagusia, lan-harremanen prozesuan funtzio nagusiak bereganatuz, ingelesa zela (5). Esku-langile eta erdi-mailako koadroek orohar frantsesez ziharduten. Lan-prozesuaren behe maile-

tan batipat eta erdikoan zerbait, komunikazio-hizkuntzatzat frantsesa zuten. Frantsesa orduan, erdi mailako koadroetatik gora ez zen erabiltzen. Goi-mailako kargudunek ia erabat ingelesa zerabilten, bai beren artean, bai erdi mailako koadroekin. Hitz batez, klase eta frakzio sozialen arabera, ez modu mekaniko batez noski, joera orokor bezala baizik, ingelesa zen nagusi aparatu ekonomiko-produktiboetako maila nagusienetan. Frantsesa ostera, aparatu horren barruko langile arrunten harreman-hizkuntza.

Eman ditzagun datu batzu hizkuntzen erabilera arlo honetan zertan zen azaltzeko. Talde linguistikoen hizkuntz erabileraren portzentaiak datoz orohar (6).

#### EGOERA LINGUISTIKOAK

Talde linguistikoak	Gutxi gora-behera frantsesa soilik	Gutxi gora-behera ingelesa soilik	Bi hizkuntzak	Beste hizkuntzak	Guztira
Frantses-hiztunak	64 % 1.165.000	3 % 55.000	32 % 582.000	1 % 18.000	100 % 1.520.000
Ingeles-hiztunak	5 % 17.000	63 % 216.000	32 % 111.000	0 %	100 % 344.000
Gainerakoak	14 % 25.000	36 % 63.000	40 % 71.000	10 % 18.000	100 % 177.000
Formula hauetako bakoitza praktikatzen duen langile-kopurua.	1.207.000	338.000	760.000	36.000	2.341.000

Taula honetako hizkuntzen erabilera-tasa begiz jota, gezurra dirudi frantsesa arriskuan dagoenik. Gezurra dirudi Quebec-en orohar sei miloitik bostek, gutxi gora-behera 80 %-ek, ezagutzen duten hizkuntza beste batek ordezkia lezakeenik. Halaz ere, gauzak horrela dira: hizkuntzen normalizazio/

ordezkatzeko prozesu-joeraren determinantea ez baita hain zuzen, hiztun-kopurua azken finean, botere politikoaren hizkuntz jarrera baizik.

Beste hainbeste gertatzen da irakas-kuntzaren eremuan. «scolaire précollegial» delakoaren sail-barruan, irakas-

kuntzan erabiltzen diren hizkuntzen arabera eta ikasketa-maila kontuan harturik, hauek dira erabilpen-tasak 1977-78 ikasturtean (7).

Irakaskuntza-maila	Frantsesez	Ingelesez
Eskolaurrea	85,7	14,2
Lehen maila (primaire)	83,5	16,5
Bigarren maila (secondaire)	83,5	16,5
Guztitara	83,7	16,3

## II. OINARRI JURIDIKOEN ERAGINA

Egia da, —beti ez bada, gehiengutan—, gizarte-errealitate zinezkotik urrun ibili ohi dela berorri dagokion egitura juridikoa. Hau, izan ere, sarri askotan, itxurazkoa izaten baita, formalismo hutsa. Errealitate oro, linguistikoa ere bai beraz, besterik da, ideologia juridikoak aitor dezakeena gorabehera. Baina hori guk bezain ongi dakitela dirudi: «Il faut le répéter: dans une politique de la langue, la loi n'est pas tout» (6) Quebec-en, frantsesa oinarri juridiko sendoz babestua dago, eta ez da gutxi, hasteko. Izan ere, hasieran bertan, baldintza hau betetzen ez baldin bada, urrutigabe porrot egingo du edozein projektuk, hizkuntzaren normalizazio soziolinguistikoa berdin. Ezinbesteko da hortaz, abiapuntu-gisa. La Charte irakurtzen duen euskaltzalea txunditurik geratzen da gure hizkuntzak dituen oinarri juridikoak ezagaturik.

Ikus ditzagun La Charte-ren kapitulu batzu, guretzat jakingarrienak agian, oinarri juridikoaren eragina igartzen saiatuz.

«Titre I. Chapitre I. 1. Le français est la langue officielle du Québec». Garrantzi handikoa da «la» artikulua singularra izatea, Canadako beste probintzietan «soilik «les» baitago. Haue-tan, frantsesaren erabateko lur-jotzea ez

da denbora luzeko gauza izango orain lurjota ez dagoen zenbait lekutan (hiru bat milioi frantses-hiztun geratu bide dira beste probintzia guztietan hemezortzi milioietatik). Gai honetan azpimarkagarria iruditu zait Quebec-eko Gobernuaren jokabidea: ez zaio falta borondaterik, aginte autonomoari behintzat, interferentziak interferentzia, frantsesa bakarrik dela hizkuntza ofiziala finkatzeko. Jarrera hau, bere ondorio guztiak xeheki aztertzen hasiz gero, gure bidaian behin eta berriro entzun dugunarekin bat dator: «gure helburua ez da elebitasuna, elebakartasuna baizik». Baieztapen hori egin bezain laster, dena esateko, puntualizazio txiki bat ere egin ohi ziguten atzetik: «gure situazio geolinguistikoa kontutan izanik, ingelesa behar-beharrezkoa zaigu». Beharrian hau ukatu gabe noski, baina halere, heldu dioten bidean garaile ir-tengo balira, jadanik ez litzateke frantsesa egoera diglosikora makurrarazten dena, alderantziz baizik. Hau da: elebitasun indibiduala edo sozialean, nolahi deituta ere, frantsesak beteko litzuzke hizkuntza nagusiaren funtzio sozialak orain ez bezala. Ez dute sinisten, labur esateko, elebitasun orekatuan, gure artean oraindik zenbaitek sinistu nahi duen arren.

«Chapitre III. 7. Le français est la langue de la législation et de la justice au Québec». Honen ondorioz, lege-

projetuek frantsesez idatzirik egon behar dute. Are gehiago: frantsesez erre-daktaturik dagoen textua bakarrik izango da ofiziala. Hau ez da maiz pentsatu ohi dugun ideologia juridikoaren liluramendu hutsa. Ezin da, alegia, elebitasunaren hariko ideologia interesatu hark azpijoko bidez estali nahi duen errealtate engainagarria erabat iraunarazi. Izan ere, agerian baitago textu ofizial bakarra frantsesa baldin bada, itzulitako ingelesezko textua ezin dela ez interpretazio-textu izan eta ez ere, edo nekez behintzat, debate-textu izan. Nolabait esateko, problematika honetan, lehentasun garbi bat ematen zaio frantsesari orden juridikoan eta, ondorioz, efektu praktikoko onuragarriak dakartzio ingelesaren aldamenean.

«Chapitre IV. 15. L'Administration rédige et publie dans la langue officielle ses textes et documents». Parrafo honek ez luke, besterik gabe eta bere hartan, esangura berezirik, gero bere neurri praktikoa mamitzeko erabiderik ez balu. Hori ongiegi dakigu euskaldunok zoritxarrez. Quebec-en, haien zorionerako, nazio barruan kokaturik dauden instituzio orori frantsesez baikik ez zaizkio adierazpenak igortzen. Gobernu autonomoaren barrutiko administrazio osoan berdin-berdin, frantsesa da idatzizko adierazpenetan darabilten bakarra. Administrazio lanpostuak betetzerakoan nahitaezkoa da frantsesari buruzko ezagupen egoki baten jabe izatea. Iragarkietan orobat frantsesa soilik, salbuespen batzu salbu. Dena dela, honako udal-erakunde hauetan, hots, eskola, osasun-zerbitzu eta zerbitzu sozialetan, beren zerbitzuak erabat frantsesez eskaintzeko eran izan daitezten, 1977ko abuztuaren 26tik 1983.urte amaierako epe barruan frantsese-egitarauak martxan daude. Guztiz txalogarria azken neurri hau, benetan. Epeak gora-behera, zeren agian 1983. urte amaierako epe-muga hori ez baita behin-betirakoa izango, luzagarria baizik, beharrezko neurribideak dira. Nolanahi ere, kontua zera da: Quebec-

eko administrazioa frantsesteko plangintza oso bat ezarrita dagoela, alde batetik, eta La Charte delako legea onartu zenetik erabilpena bermatu zela, bestetik. Eredugarri da bestalde, administrazioan frantsesaren erabilpena gehien eta gogokien bermatu diren jerarki-mailak goi-gailurretakoak direla Ministerietatik abiatuz.

«Chapitre VI. 41. L'employeur rédige dans la langue officielle les communications qu'il adresse à son personnel. Il rédige et publie en français les offres d'emploi ou de promotion». Estatu espainoleko nazio edo nazionalitateetan lortu berri dituzten Autonomi Estatu-tuen ondotik, norik bere Parlamentuan, aurkeztuak dituzte eta ZUTABEren zenbaki hau kaleratzen denerako bat edo beste onartuak, delako hizkuntzen erabilpena normalizatzeko lege-projektuak. Hauen eta Quebec-eko lege sonatuaren artean dagoen aldea somatzeko agian aski da adizkera desberdinok begiz jotzea; batean «ils doivent» eta «doit être» ageri den lekutan bestetan «ahaleginduko da» eta «saiatuko da» irakurtzen ditugu.

VI Kapitulara itzuliaz, beronen desarroiloan, besteak beste, zera ezarriko da: lanpostu bat lortzeko frantsesa baikik ez dela exijitu ahal izango. Katalanera, gailegera eta euskara, lanpostuak betetzeko deialdietan, meritu-probetan sartuak ikusten ohituak gaudenontzat Quebec-eko hizkuntz neurriak, orohar harturik, ametsaren pareko direla iruditzen zaizkigu. Agerian dagoenez, hango hizkuntz politika hona extrapolatzea, batetik bestera dagoen aldea azpimarratzeko besterik ez da izango. Aldeak alde, guzti honekin ez dugu honetara baikik iritxi nahi: normalizazio soziolinguistikokoak berarekin daramala, bere aurretik behar bada, normalizazio juridiko-linguistikoa eta, luzarora, instituzio publikoen eta herri-erakundeen eskuharmenaren haritik erabateko normalizazioa.

### III. ONDORIOAK

La Charte de la langue française 1974eko Uztailaren 31ean sartu zen indarrean. Ezin bada, oraingoz bederen, Quebec-eko esperientziaren ondorioak neurtzeko eta ebaluatzeko behar hainbat datu eta azterketa-elementu eskuratu. Halaz guztiz ere, gure bidaiaren barrena izan ditugun harremanei esker, gaingiroki bada ere, somatu genuenaren berri emango dut azkenik.

a) Batere zalantzarik gabe, lehen konstataziorik funtsezkoena bezala, Quebec-eko Gobernuaren hizkuntz politikak azken xedetzat elebakartasuna duela aitortu behar. Elebitasunaren azpajoko ideologikoetaz oharturik daude. Eta elebitasunaren dimentsio soziala ukatu eta gutxietsi gabe, batez ere Estatu Batuak aldamenen daudelako, elebitasun-azua gizabanakoaren mailako arazotzat daukate. Quebec-en ingelesaren beharra ukatzen duenik ez dago. Baina, lehen esan dudan legez, frantsesa hizkuntza nagusia bilakatzeko xedearekin dihardute, hots, egoera diglosikoaren kateetatik atera asmoz.

b) Bigarren konstatazioa: lehentasun politika nabarmen bat igar zitekeen hizkuntz politika orokorraren barne. Egoera arras ezberdina izanik ere, ez dabilta gure artean maiz nagusitu nahi duen uestearekin. Ez dute, izan ere, ahalegin handirik egiten pertsona helduen frantsese-arloan. Hori, zeharka edo daramaten hizkuntz politika orokorraren ondorioz, berez lortu nahi duten fruitua dela dirudi. Esaterako, enpresen frantsese-egitarauen materializazioak, besteak beste, era askotako langileen frantseseta berarekin bait dakar hein batetan. Adierazgarria da aparatu politiko eta ekonomikoak frantsesera zuzentzen dituztela hizkuntz politikaren ahalegin bortitzenak. Agian, daramaten politika han soilik eraman daitekeena da, elebitasunaren egoera sozialak horretarako bide ematen duelako (80 % frantses-hiztun). Lehentasunak direla eta, Quebec-eko botere autonomoaren

aparatu politiko-administratiboaren sare guztia alde batetik, eta aparatu ekonomikoaren lan-harremanak frantseseta bestetik, ipini bide dituzte beste gizarte-esparruan aurretik. Bi gizarte-esparru nagusiok konkistatu nahi dituzte frantsesarentzat. Alde txarrak aipatzekotan, aitortu behar, gizarte-komunikabideak bezalako tresna sozialen eragin osoa ez dutela beraien alde. Maila honetako kompetentziaren aurka ezer gutxi egin bide dezakete: Canada eta Estatu Batuetako telebista eta emisoren gainera-soa berdindu ezinezkoa zaie. Ez telebista, irrati eta prentsarik frantsesetz falta zaielako, dituztenen aldamenen, ingelesezkoak, gehiago eta ahaltsuagoak direlako baizik. Hortik jarraitzen da, ingelesari kendu nahi zaizkion gune sozialak, lehen-lehenik, aparatu politiko-juridiko eta ekonomikoak izatea. Nire uste apalean, irakaskuntza eta komunikabideak, adibidez, ez daude hango hizkuntz politikaren balorazioetan aipatu ditugun besteen graduan.

c) Ikuskizun dago oraindik Quebec-eko bi hizkuntzen iraupen eta desplazamendua, azkenean, zein aldetara makurtuko den. Halaxe baitago, egon, Quebec-eko herriak zein heinetan asumitu eta eskuhartzen duen bere hizkuntz gatazkaren borroka honetan. La Charte eta bere ondorioz aplikatzen hasi diren hizkuntz politika jaiotzerria da. Bost-seiz urte, hizkuntz gatazkan, joerak nondik-nora bideratzen diren igertzeko, apenas ezer diren.

Dena dela, ZUTABEren zenbaki honetan bertan argitaratuta dagoen beste lan batean irakur dezakezun bezala, Quebec-eko Gobernuak bere asmo eta nahiak benetakoak direla erakutsi gogoz, frantsesaren normalizazio soziolinguistikorako interbentzio-aparatu konplexu osoa muntatu eta bidean jarri du. Aipagarriak «L'office de la langue française», «Le Conseil de la langue française» eta «La Commission de surveillance» lirakeke. Erakunde hauei, alde edo moldez loturik, beste hainbat eta hainbat erakundetxo, zerbitzu eta sail.

Bakoitza baliabide material eta tekniko aski ongi horniturik. Zer esanik ez giza baliabideei dagokienez.

Horrenbestez, frantsesak ingelesa bere lekutik desplazaratuz leku hori bera beretzat hartzen ez badu ere, oraingoz diot, «goitik» badago hizkuntz politika antidiglosiko garbi bat burutzeko go-go. Baina gerta liteke, hori ere aski ez izatea, frantsesaren alde dauden indar sozial guztiak Gobernuarekin bat egituz proiektua aurrera ateratzeko gauza ez baldin badira.

(1) La Commission royale d'enquête sur l'enseignement (commission Parent); La Commission royale d'enquête sur le bilinguisme et

le piculturalisme (commission Lanreudeeau-Duston); La Commission d'enquête sur la situation de la langue française et sur les droits linguistiques au Québec (commission Gendron).

(2) Le livre blanc sur la langue française. 1977.

(3) Les aspects démographiques de la question linguistique au Québec. 1973.

(4) Rene Didier. Les processus des choix linguistiques de immigrants au Québec. 1973.

(5) Serge Carlos. L'utilisation du français dans le monde du travail au Québec. 1973.

(6) La langue de travail. Commission Gendron. Gouvernement du Québec. 1972.

(7) Claude St. Germain. La situation linguistique dans les écoles primaires et secondaires. Gouvernement du Québec. 1980.

(8) Le livre blanc sur la langue française. 1977.

## BREVE OJEDA AL CONFLICTO LINGÜÍSTICO DE QUEBEC

### I.—PROCESO DE SUSTITUCION

Es a partir de mediados de siglo cuando el pueblo de Quebec empieza a ser consciente de la situación de su lengua y se comienza a investigar la situación sociolingüística concreta del francés.

Los resultados de las encuestas señalaban que el número de francófonos disminuía paulatinamente y, por otro lado, que la tendencia de los inmigrantes era la de integrarse entre la minoría inglesa (debido a la función social que el inglés cumplía dentro de las redes del poder).

La experiencia de Quebec (donde el 80 % de los habitantes son francófonos) nos enseña que no importan los meros porcentajes de hablantes de la lengua dominante o dominada. Es evidente que en un conflicto lingüístico en los desplazamientos del proceso de sustitución, es más importante la dirección del desplazamiento que el factor cuantitativo de hablantes.

### II.—INFLUENCIA DEL FUNDAMENTO JURIDICO

En Quebec el francés está amparado por un recio fundamento jurídico. Aunque son muy conscientes de que esta base jurídica no lo es todo, no es menos cierto que cualquier proyecto de normalización lingüística necesita obligatoriamente del mismo como punto de partida.

Los quebequeses no creen en un bilingüismo equilibrado, pero por otro lado tienen presente la necesidad del inglés por su situación geolingüística. La Chartre asegura, al contrario de lo que ha ocurrido hasta ahora, el status social del francés como lengua prioritaria.

Podemos extraer una importante consecuencia: la normalización sociolingüística lleva consigo la normalización jurídico-lingüística y a largo plazo la normalización definitiva, en base a la participación de las instituciones públicas y de organismos populares.

### III.—CONCLUSIONES

1.—Como primera constatación fundamental hay que confesar que la política lingüística del Gobierno de Quebec tiene como última aspiración el unilingüismo.

2.—En Quebec no se está realizando un gran esfuerzo por francesizar a los adultos, ya que ésto es una simple consecuencia de la política lingüística general que está basada en francesizar toda la red del aparato político-administrativo, así como el aparato económico.

3.—Aunque es todavía temprano para efectuar una valoración de las consecuencias de la Chartre, es clara la voluntad del Gobierno que ha creado un complejo aparato de intervención en la normalización socio-lingüística del francés a base de organismos dotados de suficiente material técnico.

## UN COUP D'OEIL SUR LE CONFLIT LINGUISTIQUE DU QUEBEC

### I.—PROCESSUS DE SUBSTITUTION

*C'est à partir du milieu de ce siècle que les Québécois deviennent conscients de l'état de leur langue et que la situation socio-linguistique spécifique du français commence à être étudiée.*

*Les résultats des enquêtes signalaient que le nombre de francophones diminuait peu à peu et d'autre part que la tendance des immigrants était de s'intégrer parmi la minorité anglaise. Cela était dû à la fonction sociale que l'anglais remplissait à l'intérieur du réseau du pouvoir.*

*L'expérience du Québec (où 80 % de la population est francophone) nous montre que les pourcentages des sujets parlants de la langue dominante où dominée importent peu. Il est évident que dans un conflit linguistique, dans les déplacements du processus de substitution, la direction du déplacement est plus importante que le facteur quantitatif de sujets parlants.*

### II.—INFLUENCE DU FONDEMENT JURIDIQUE

*Au Québec le français est protégé par un fondement juridique solide. Les québécois sont conscients que le seul fondement juridique n'est pas suffisant mais qu'il est néanmoins indispensable comme point de départ, quelque soit le projet de normalisation linguistique.*

*Les québécois ne croient pas en un bilinguisme équilibré mais ils ne négligent pas la nécessité de l'anglais, étant donné leur situation géolinguistique. La Charte assure, contrairement à ce qui s'est passé auparavant, le statut du français comme langue prioritaire.*

*Nous pouvons déduire une conséquence importante: la normalisation socio-linguistique comporte la normalisation juridico-linguistique et à long terme la normalisation définitive, fondée sur la participation des institutions publiques et des organisations populaires.*

### III.—CONCLUSIONS

1) *La première constatation fondamentale est d'admettre que l'unilinguisme est l'aspiration ultime de la politique linguistique du Gouvernement Québécois.*

2) *Au Québec, on ne porte pas un intérêt spécial sur la francisation des adultes étant donné qu'elle découle de la politique linguistique générale fondée sur la francisation de l'ensemble du réseau politico-administratif ainsi que de l'appareil économique.*

3) *Bien qu'il est encore tôt pour faire une valoration des conséquences de la Charte, le bon vouloir du gouvernement est évident dans la création d'un appareil complexe d'intervention dans la normalisation socio-linguistique du français, fondé sur des organismes pourvus d'un matériel technique adéquat.*

## A BRIEF LOOK AT THE LINGUISTIC PROBLEM OF QUEBEC

### 1) SUBSTITUTION PROCESS

From the middle of this century, the people of Quebec became aware of the situation of their language and they began to investigate the actual social linguistic situation of the french language.

The surveys showed that the number of french speakers was gradually diminishing and on the other hand immigrants tended to integrate into the english minority. (Due to the social function that english had within the network of power).

The Quebec experience (where 80 % of the people are french speaking) shows that, only the percentages of speakers of the dominated or dominating language are not so important. It becomes clear that in a linguistic conflict,

when we consider the displacements of the substitution process, the direction of the displacement is more important than the quantitative factor of speakers.

### 2) INFLUENCE OF THE JURIDICAL FOUNDATION

In Quebec the french language is fostered by a strong juridical foundation. Although they are aware that this juridical basis isn't everything, it is also true that any project of linguistic normalisation obligatorily needs it as starting point.

The people of Quebec don't believe in a balanced bilinguism but on the other hand they know the usefulness of english due to their geolinguistic situation. The chart grants, the

opposite of what has happened until now, the social status of french as the primary language.

We can obtain an important consequence: the social linguistic normalisation includes the juridical normalisation, and in the long run the definite normalisation, based on the participation of public institutions and popular assemblies.

#### CONCLUSIONS

1) As first fundamental observation it must be said that the linguistic policy of the go-

vernment of Quebec considers unilinguism as their goal.

2) Not much effort is being made to teach french to adults in Quebec. This teaching is include into the general linguistic policy which is based on teaching french to the political administrative and economic networks.

3) Although it is still too soon to make a judgment on the consequences of the Chart, the governments will is clear because it has created a complex intervention organisation for the social linguistic normalisation of french based on institutions whith abundant technical material.